Proposamen ekolinguistikoak nazioartekotzerako

(Ecolinguistic proposals for internationalizating companies)

IRIZAR MANTZIZIDOR, Abel
Emun Koop. E. Uriburu 9, behea. 20500 Arrasate
abel@emun.com

Enpresen hizkuntza-kudeaketarako ekolinguistikaren printzipioa onuragarria izan daitekeela azaltzea da helburua.

Lehenengo, globalizazioaren aro honetan hizkuntza gutxituek bizi duten egoeraren diagnostiko laburra egingo da eta ekolinguistika zer den azalduko da. Ondoren, enpresen gizarte erantzukizuna ardatz modura hartuz, hizkuntzen garapen iraunkorraren kontzeptua enpresen hizkuntza-kudeaketan txertatzeko arrazoiak eta bideak azalduko dira. Amaitzeko, nazioartekotuta dauden enpresei begirako jarraibide eta aholku teoriko-praktiko batzuk aurkeztuko dira.

Giltza-Hitzak: Ekolinguistika. Eleaniztasuna. Garapen iraunkorra. Gizarte-erantzukizuna. Nazioartekotzea. Subsidiaritatea. Funtzio banaketa.

La presente comunicación tiene por objeto explicar que el principio de la ecolingüística puede resultar positivo para la gestión idiomática de las empresas.

En primer lugar, se realizará un breve diagnóstico sobre la situación de las lenguas minorizadas en la era de la globalización y se procederá a definir la ecolingüística. A continuación, en el contexto de la responsabilidad social de las empresas, se explicarán los motivos y los medios para introducir el concepto de desarrollo sostenible de las lenguas en la gestión idiomática de las empresas. Por último, se proporcionarán algunas pautas y consejos teórico-prácticos para las empresas internacionalizadas.

Palabras Clave: Ecolingüística. Plurilingüismo. Desarrollo sostenible. Responsabilidad social. Internacionalización. Subsidiariedad. Distribución de funciones.

Le présent exposé a pour objet d'expliquer que le principe de l'écolinguistique peut s'avérer positif pour la gestion linguistique des entreprises.

Tout d'abord, on réalisera un bref diagnostic sur la situation des langues minorisées à l'ère de la mondialisation et on tentera de définir l'écolinguistique. Ensuite, dans le contexte de la responsabilité sociale des entreprises, on expliquera les motifs et les moyens pour introduire le concept du développement durable des langues dans la gestion linguistique des entreprises. Enfin, on proposera quelques règles et des conseils théoriques et pratiques pour les entreprises internationalisées.

Mots Clés: Écolinguistique. Multilinguisme. Développement durable. Responsabilité social. Internationalisme. Subsidiarité. Répartition de fonctions.

1. SARRERA

Mundua globalizazio-prozesuan murgilduta dago. Gaur egun munduko leku batetik besterako distantziak txikitzen ari dira. Informazioaren teknologiei esker, gainera, gertatu ahala dakigu zer gertatzen ari den munduaren beste aldean. Informazioaren gizartean bizi gara eta komunitateen arteko harremanak eta komunikazio sareak sortzen eta aldatzen ari dira etengabe munduan. Pertsonen batetik besterako joan-etorria ere asko hazi da azken urteetan. Eta horri emigrazioaren fenomenoa gaineratu behar zaio.

Aldaketa teknologiko, ekonomiko, sozial eta kultural ugari dakar, hortaz, ezinbestean, globalizazioak. Hizkuntzen arteko harremanen konfigurazioa ere aldatzen ari da, eta globalizazioa hizkuntzen osasunean zuzenean eragiten ari da, noski. Gizarte mailako edozein aldaketak eragina dauka hizkuntza-jardunean, jardun guztietarako erabiltzen baitugu hizkuntza. Bada, halaxe gertatzen ari da hizkuntzekin, oro har, eta baita hizkuntza gutxituekin ere. Kasurik gehienetan minorizazio-prozesua azkartzea eta komunitate txikiak desegitea ekarriko duela diote adituek. Bestalde, globalizazioaren aurrean hizkuntza gutxituei aukera berriak ere ikusten dizkiote beste zenbait adituk. Ados daude denak, hala ere, globalizazioak bere arriskuak badituela onartzean, eta onura edo kaltea eragin, aldaketak etorri etorriko zaizkiela munduko hizkuntza-komunitate txiki gehienei.

Ekonomiaren alorrean ere nabarmenak dira gertatzen ari diren aldaketak. Mugarik gabeko merkatua da gaur egungoa. Enpresa multinazionalek mundu osoa dute merkatutzat, eta kapitalismoaren eredu neoliberalak zabalduta ditu hegoak mundu osora. Izan ere, mundializazio-prozesu hori guztia eredu ekonomiko horren itzalpean gertatzen ari da. Eta, batez ere, mendebaldeko gizartean dauka bete-beteko eragina. Gu gara munduko ondasun gehienen saltzaile eta kontsumitzaile; gu gara munduko hondakin gehienen sortzaile; gu gara munduko energia kontsumoaren premiarik handiena dugunok.

Hala ere, eskulan merkea eta lehengaiak herrialde pobreagoetan daudenez, horiek ustiatzen ditugu. Han sortzen ditugu etekin-aukerak, han egiten ditugu hemen diseinatutako produktuak. Han sortzen ditugu hondakinak, eta etekinak hemen poltsikoratzen ditugu. Beraz, multinazionalen esku-hartzeak ere badauka eragina herrialde pobreetan, eta han ere utzi bere arrastoa globalizazioak.

Merkatua ireki eta globalizatu egin denez, enpresak negozio-aukera berrien bila atera dira mundura, lehiakortasunari eusteko ahaleginean. Prozesu horretan sartu eta mundu zabalera atera dira euskal enpresa asko ere. Mundu osoko hedapena duten enpresa multinazional erraldoiak etekin izugarriak ateratzen ari dira, eta multinazional askok botere-maila handia eskuratu dute munduan.

Baina, zer nolako politika darabilte mundu osora zabalduta dauden enpresa multinazional horiek? Etekin ekonomiko azkarrari soilik begiratuta lan egiten al dute? Zein hizkuntzatan mintzatzen dira? Zein balio dituzte? Zein onura klase eskaintzen diote lekuan lekuko komunitateari? Txertatzen eta integratzen al dira benetan lekuan lekuko gizartean?

Eta zertan dira euskal enpresak? Nazioartekotze prozesuan murgildu berri diren *gure* enpresek erakusten al dute *bestelako* sentsibilitaterik? Zein balio dituzte?

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

Zenbateraino hartzen dute kontuan kultur eta hizkuntza aniztasuna? Hartzen al dute inolako neurri ekologikorik? Zer gehiago egin dezakete?

Horiexek dira azterlan honen iturburuko kezka eta galdera nagusiak.

Honako hau maila teorikoan egindako lanketa da eta nazioartean hizkuntzen kudeaketa iraunkorra optimizatzeko jarraibideak proposatzen dira. Alegia, hemen proposatzen duguna da ekolinguistikaren lenteak jantzita teorian enpresak nola jarri beharko luketen praktikan hizkuntzen kudeaketa iraunkorra. Horrez gain, hizkuntzak modu iraunkorrean kudeatzeak enpresari zein onura ekar diezazkion ere aipatzen da, errentagarritasun terminoetan.

Uste dugu lan honetan lantzen den hipotesia eta ematen diren jarraibideak interesgarriak izan daitezkeela enpresen gizarte erantzukizunean sakondu nahi duten enpresa berritzaileentzat. Nazioartekotutako enpresei gizarte erantzukizuna modu berritzailean garatzeko aukera bat proposatzen diegu, hortaz.

Enpresei begira, balio dezake barne-hausnarketa eragiteko eta hizkuntza-aniztasunaren aldeko diskurtso filosofikoa barneratzen hasteko. Horretarako, baina, diskurtso berri honetan sinesten duten liderrak beharko dira nahitaez.

Hiru ataletan banatuta dago lana:

- Hizkuntza-ekologiaren teoriaren inguruko zertzelada nagusiak.
- Hizkuntza-garapen iraunkorraren printzipioa enpresen gizarte-erantzukizunarekin uztartzea eta enpresaren errentagarritasunarekin lotzea.
- Hizkuntza-ekologiaren eta iraunkortasunaren arrastoari jarraituz, nazioartekotutako enpresentzako jarraibide edo proposamen orokorrak eskaintzea.

Amaitzeko, krisi garaian lehiakortasunerako joera eta lehiakideengandik ezberdintzeko premia handitu egingo den hipotesia ere mahai gainean jarri nahi dugu. Hori hala izanik, etorkizunean diskurtso honek indarra har dezakeela iruditzen zaigu. Horretan asko lagunduko lukete guk hemen planteatzen dugun hipotesia frogatu eta diskurtsoa sendotuko luketen ikerketek. Ikerketa gehiago eta emaitza esanguratsuak behar dira, beraz, enpresaburuen begietara diskurtso hau sinesgarri bihurtzeko eta hizkuntzen kudeaketa iraunkorra praktikan negozio-aukera bilakatzeko.

2. HIZKUNTZA EKOLOGIA ETA HIZKUNTZEN GARAPEN IRAUNKORRA

2.1. Munduko hizkuntza-aniztasunaren diagnostikoa

Globalizazioaren eraginez asko zabaltzen ari da ingelesaren erabilera mundu osoan. Askok hizkuntza neutral gisa hartzen dute ingelesa; ez da hala, ordea. Ingelesa kultura anglosaxoiaren sinboloa da, eta horrek baditu makina bat konnotazio saihestezin. Argi azaltzen du hori Unescok munduko hizkuntzei buruzko txostenean:

> Ingelesa ez da, inondik inora, gizateria nazioarteko bihurtuz joatearekin lotutako hizkuntza neutrala. Guk nahi izan ala ez, ingelesa kultur mota zehatz eta jakin batekin lotzen da; beste edozein bezain duin eta baliotsua, noski, baina inola ere ez maila altuagokoa. (…)

> Hizkuntza zehatz bat darabilgunean, horrek zantzuzko erreferentzia bat ematen du, nahita edo ez, erreferente edo eredu kultural zehatz batzuei buruz. Ingelesaren (eta beste hizkuntza batzuen) irudi neutrala helburu inperialistetarako erabiltzen da. Hala baieztatzen du esplizituki Phillipson-ek:
>
> Ingelesa neutrala dela baieztatzean (erreminta bat, tresna bat) bereizketa egiten da ingelesaren beraren (kultura) eta horren egiturazko oinarriaren artean (zer duen eta zer egiten duen). (…) Hizkuntza nagusi horrek bere irudia sortu eta goresten du, eta, aldi berean, beste hizkuntzen balioa gutxitu eta horien arteko harremana ezartzen du, bere alde arrazoituz.
>
> Honako hau aldarrikatzen dute jarrera inperialista anglosaxoiek: nazioarteko ingelesak kosmopolitago egiten gaitu eta munduko herritar garela sentiarazten digu, albo batera utzita nazionalismo sentimental eta baztertzaileak.

Hizkuntzalariek eta adituek diotenez, ingelesa hedatzeak beste kultura eta hizkuntza batzuk menderatzea dakar, eta baita horien galera ere:

> Amerikar ingelesa ezin da izan benetako nazioarteko hizkuntza, hau da, guztiei leku guztietan komunikatzea ahalbidetuko dien tresna neutroa. Kultura jakin baten bitartekoa da, eta arriskutsua izan daiteke, gainerako kultura guztiak irentsi eta negoziorako objektu bihur baititzake (Hagège, 2000).
>
> (…) AEBek gero eta nagusitasun sozio-politiko eta sozio-ekonomiko handiagoa dute, eta, gainera, nagusi dira komunikazio bide aurreratuenetan ere. Horrek ingelesa munduko hizkuntzen buruan jartzea ahalbidetu du (May, 2001).
>
> Ingelesaren zabalkundea oso urrun dago fenomeno natural edo berezkoa izatetik. Badira Britainia Handiak eta AEBek ordaindutako erakundeak, ingelesa nazioarteko hizkuntza bihurtzea xede dutenak. Phillipson-ek (1992) British Council eta United States Information Agency erakundeak aipatzen ditu horien artean; egile horren arabera, hizkuntz inperialismo anglosaxoiaren agentziak dira, eta kultura angloamerikarraren balioen aintzatespena sustatzea dute helburu. Hori, noski, zilegi izan liteke; baina inola ere ez du esan nahi kultura aldetik ingelesa hizkuntza neutrala denik, zenbaitetan esaten den bezala.

Argi ikusten da, beraz, ingelesaren hedapen masiboak kalte handia egiten diola hizkuntzen elkarbizitzari, eta, gainera, pentsaera elebakarreranzko bidea dela.

Hizkuntzalarien arabera, munduan 6.000 hizkuntza inguru daude, 220 bat estatutan banatuta.

Ethnologue-ren katalogoaren arabera, 6,912 dira munduko hizkuntzak. Living Tongues eta National Geographic erakundeek egin berri duten ikerketan, berriz, 6.992 zenbatu dituzte. Unescoren arabera, hauxe da munduko hizkuntzen banaketa, kontinenteka: Afrikan %32 inguru; Asian %32 inguru; Ozeano Barean %18; Amerikan %15; Europan %3.

David Crystal hizkuntzalariak dioenez, munduko hizkuntzen ia %82k 100.000 hiztun baino gutxiago ditu. Eta hizkuntzen ia %56 10.000 hiztunek edo gutxiagok erabiltzen dute egunerokoan.

Munduko hizkuntzen %74k ez dute, berez, inolako ofizialtasun estatusik inon. Hizkuntzen %7 ofizialak edo koofizialak dira herrialderen batean, eta %19 koofizialak dira hitz egiten diren lurraldean edo zati batean.

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

Munduko populazioaren %96k munduko hizkuntzen %4 erabiltzen du, eta munduko populazioaren %4k munduko hizkuntzen %96.

Hizkuntza asko estatu batean baino gehiagotan erabiltzen direnez, administratiboki zatituta geratu dira. Ondorioz, zatiketa horrek eraginda, komunitateko hiztunek era bateko edo besteko hizkuntza-eskubideak izan ditzakete aitortuta eremu administratibo bakoitzean.

Globalizazioaren eta merkataritzaren liberalizazioaren eragina nabarmen ari da nozitzen gure planeta. Enpresa handien eragina ere gero eta handiagoa da munduan. Mundializazio horrek eraginda, presio-taldeak sortzen ari dira, eta multinazionalei eskatzen diete beraien jarduna nolabait gizatiarragoa izan dadin.

2.2. Hizkuntzen heriotza, abiadura bizian

Ikerlari askoren ustez, hizkuntza-desagerpena izango da XXI. mendeko arazo sozialik larrienetakoa.

Mende honetan, munduan mintzatzen diren 6.000 bat hizkuntzen %90 galtzeko arriskuan sartuko dira. Halaxe iragarri zuen 1992an Michael Kraussek. Izan ere, galera-erritmoa azkartzen ari da.

Hizkuntzalarien arabera, gaur egun hizkuntzek 100.000 hiztun behar dituzte, gutxienez, bizirik iraun ahal izateko. Munduan dauden 6.000 hizkuntzetatik erdiek 10.000 hiztun baino gutxiago dituzte eta laurdenak ezta 1.000 hiztun ere. Hogei dira hainbat milioi hiztun dituzten hizkuntza bakarrak.

Hizkuntzak ez dira inoiz orain bezain azkar galdu: urtean hamar. David Crystal hizkuntzalari ospetsuak dio bi astetik behin hizkuntza bat hiltzen dela. Iragarpenik ezkorrenen arabera, hizkuntzen %50 gutxienez hil egingo dira XXI. mende honetan.

Honela azaltzen ditu, labur-labur, Ranka Bjeljac-Babic hizkuntzaren psikologiako ikertzaileak hizkuntzen heriotzaren ingurukoak:

> Hizkuntzen heriotza aspaldiko kontua da. Dibertsifikatzen hasi zirenetik, 30.000 (zenbaiten ustez, 500.000) sortu eta hil dira, gutxienez, sarritan inolako aztarnarik utzi gabe. Gainera, nahikoa denbora laburra egin dute bizirik. Oso hizkuntza gutxik iraun dute 2.000 urte baino gehiago: euskarak, egiptoerak, txinerak, grekerak, hebreerak, latinak, persierak, sanskritoak, tamilerak… Baina, orain, hizkuntzak oso azkar galtzen dira, eta hori fenomeno berria dugu. Egin dezagun, bada, denboran atzera. Europako konkista kolonialen eraginez, hizkuntz aniztasunak behera egin zuen oso denbora laburrean: garai hartako hizkuntzen %15, gutxienez, hil egin zen. Azken hiru mende hauetan, hamar bat hizkuntza galdu dira Europan. Australian, berriz, 20 baino ez dira geratu, eta kontuan izan behar dugu XVIII. mendearen bukaeran 250 hizkuntza zituztela. Brasilen 540 galdu dira (hiru laurdenak, beraz) 1530etik hona; portugesen kolonizazioa hasi zenetik, alegia. Estatu-nazioen sorrera erabakigarria izan zen. Horrelako egituretan lurralde batasuna eta hizkuntzaren homogeneizazioa banaezinak izaten dira. Ondorioz, nazionaltzat hartutako hizkuntzak tinko errotu ziren eta gainontzekoak, aldiz, baztertuta geratu ziren. Hezkuntzan, komunikabideetan eta administrazioan hizkuntza bakarra ezartzea izan zen estatuetako gobernuen helburu bakarra eta, horretarako, hizkuntza minorizatuak desagerrarazten saiatu ziren. Hizkuntz homogeneizazioaren aldeko prozesua indartu egin zen industrializazioaren eta aurrerapen zientifikoen ondorioz, komunikazio-modu berriak nagusitu baitziren: azkarrak, errazak

eta praktikoak. Hizkuntz aniztasuna ezagutzen hedapenaren kontrakoa zela hasi ziren esaten. Elebakartasuna bihurtu zen nahitaez lortu beharreko ideala. XIX. mendearen bukaeran hizkuntza unibertsala aukeratzeko premia hasi ziren aldarrikatzen (latina berriro erabiltzen hastea ere pentsatu zuten) eta hizkuntza artifizial pilo bat sortu zituzten, horrela. Volapük izenekoa izan zen lehenengoa, baina esperantoak izan zuen arrakastarik handiena, eta baita iraupenik luzeena ere. Hizkuntza «txikiek» gero eta mehatxu gogorragoei egin behar izan diete aurre. Hiru arazo nagusi izan dituzte: finantza-merkatuen internazionalizazioa, informazioa komunikabide elektronikoen bidez hedatzeko aukerak eta mundializazioak eragindako gainontzeko ondorioak. Interneten sartzerik ez duten hizkuntzak «galbiderantz» abiatzen dira, gaur egun, «merkataritzatik» at geratzen baitira.

Ranka Bjeljac-Babic hizkuntza-psikologiako ikertzaileak dionez,

[...] hizkuntzak galtzearen ondorioak ikuspegi askotatik izango dira larriak. Lehenik eta behin, gizaki guztiok elebakar bihurtuz gero, litekeena da burmuinak hizkuntz sormenerako duen berezko gaitasuna galtzen hastea. Bestalde, inondik inora ezingo genuke izan giza hizkuntzen jatorriaren berri eta, jakina, «lehen hizkuntzaren» h misterioa ez litzateke inoiz argituko. Azkenik, hizkuntza bat hiltzen denean, gure historiaren aldi bat ere behin betiko galtzen da. Hizkuntz aniztasuna dugu kultur aniztasunaren islarik nabarmenena. Lehenengoa galduz gero, bigarrena ere galdu egingo da. Askotan, hizkuntza jakin bat -berdin dio eskualde jakin batekoa edo nazioartekoa izan- inposatu nahi izaten zaie hizkuntza horren oso bestelako kultura eta bizimodua dituzten herriei. Hau da, isilarazi egiten da herri horien ahotsa.

Joshua A. Fishman-ek ere berretsi egiten du hori, argudiatuz

[...] guztiek galtzen dute joko horretan, kultura murrizketa jasan duen giza ingurunean arriskuan egon baitaitezke beste bizimodu batzuk ere. Horregatik galtzen dugu guztiok, 'beste herri batzuen hizkuntzak' galtzen direnean. Linguizidioa desagerrarazi egin behar dugu munduko bazter orotatik, gu guztion suizidio modu bat baita. Gure bizitzen benetako edertasunaren eta edertasun potentzialaren parte bat, horixe da munduko edozein bazterretan hizkuntza bat galtzen denean galtzen duguna.

2.3. Munduko hizkuntzen auzia: kezka-iturri eta elkarlanerako oinarri

1992ko Rioko Gailurrean bioaniztasunaren murrizketaren kontrako neurriak hartzea erabaki zuten. Horren harira, Ranka Bjeljac-Babic ikertzaileak hauxe dio:

Heldu zaigu, bada, hizkuntzen arazoari heltzeko unea. Eleaniztasunari dagokionez, XX. mendearen erdian, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean hizkuntz eskubideak ere aitortu zituzten. Orduantxe hasi zen pizten gai horren inguruko kontzientzia eta agerian geratu zen hizkuntzak ere babestu beharreko ondareak direla. Gerora, nazioarteko hainbat proiektu bideratu dira hizkuntzak babesteko asmoz, jadanik gizateriaren ondaretzat hartzen baitira.

Pertsonen eta hizkuntzen arteko ekitate-printzipioan oinarrituta, 1996an Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zen Bartzelonan, eta dokumentu horrek erakunde askoren babesa jaso zuen. Ahalegin hartan, hizkuntzen berdintasunean oinarritutako nazioarteko tresna bat abian jarri nahi izan zen, hizkuntzen arteko bereizkeriarekin amaitu ahal izateko. Deklarazio horrek hizkuntza eskubideak definitu eta zerrendatu nahi zituen; zer diren eta zeintzuk diren, baina saiakera horretan geratu zen eta eskubide kolektibo orokorrak jaso ziren bertan.

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

Horrez gain, 18 estatuk Europako Hizkuntza Gutxituen Gutuna sinatu zuten 2001ean. Frantziak, esate baterako, ez zuen sinatu.

Hizkuntza aniztasunaren gaia esnatzen hasi da azkenaldian. 1999ko abenduan 69 estatuk eleaniztasunaren aldeko erabaki-proiektua aurkeztu zuten Nazio Batuen Biltzar Nagusian. Orain dela gutxi, hizkuntz aniztasunaren eta hezkuntza eleanitzaren aldeko lau erabaki onartu ditu UNESCOren Biltzar Nagusiak. 2001ean Hizkuntzen aldeko Europako Urtea antolatuko dute Europako Batasunak eta Europako Kontseiluak, UNESCOren laguntzaz. Proiektu ugari abiarazi nahi dira mundu osoan, lankidetzatik abiatuta.

Azken urteotan hizkuntzen gaia puri-purian egon da mundu osoko hezkuntza-sistemetan. Estatu kideek etengabe eskatzen dizkigute hizkuntz arazoak konpontzeko aholkuak eta, batzuetan, oso arazo konplexuak izaten dira, gainera.

Europan, Afrikan, Asian eta Latinoamerikan argi eta garbi ikusi dute lankidetza eta konfederazioa izango direla hirugarren milurtekoaren ardatzak eta, ondorioz, ezinbestez uztartu beharko dituztela norberaren nortasuna mantentzeko ahaleginak eta komunikazioaren eskakizunak.

Horrez gain, lotura zuzena dago hizkuntza politikaren eta bake-kulturaren artean. Zapalduta dauden ama-hizkuntza minorizatuen hiztunengan egonezina eta barne-gatazkak sortzen dira beti. Hizkuntzak zaindu eta babestu egin behar ditugu, elkarrizketarako tresna diren aldetik, horixe izango baita intolerantziari eta indarkeriari aurre egiteko bide bakarra. Aipatutako filosofia izan da, hain zuzen, UNESCOren Linguapax proiektuaren oinarria azken hamabost urte hauetan.

Amaitzeko, 2005eko azaroan Europako Batzordeak *Una nueva estrategia marco para el multilingüismo* txostena egin zuen eta hizkuntza-aniztasunaren aldeko neurriak bultzatu estatukideen artean. Txosten horretan ondorio modura aipatzen da eleaniztasuna behar-beharrezkoa dela Europako Batasunak ondo funtziona dezan. Europako herritarren ezagutza linguistikoak hobetzea inportantea izango da Europak hazkunde ekonomiko iraunkorra lor dezan, eta enplegu gehiago eta lanpostu hobeak sor ditzan. Beraz, Europako Batzordeak uste du erantzukizunez jokatu behar duela eta Europako estatuei eskatzen die norbanakoen eleaniztasuna sustatu eta indartzeko neurri gehiago eta neurri eraginkorrak har ditzaten. Era berean, herritar guztien hizkuntza-identitate guztiak errespetatzen dituen gizartea sortzea aldarrikatzen du.

Hortaz, hizkuntza-aniztasunaren aldeko kultura zabaltzen hasita dago eta kezka gero eta handiagoa da. Poliki-poliki bada ere, erakundeak arduratsuago jokatzen hasiko diren zantzuak daude.

2.4. Hizkuntzen garapen iraunkorra helburu

2.4.1. Hizkuntza-ekologiaren bidea

Ingurumenaren alorrean, hauxe da ekologiaren benetako erronka: nola uztartu garapen ekonomikoa eta soziala planetaren natur oreka arriskuan ipini gabe. Hizkuntza -ekologiaren teoriak hizkuntzak espezie bizidunak balira bezala kontsideratzen ditu eta, metafora eginez, ekologiaren paradigma aplikatzen die hizkuntzei ere. Horrela, hizkuntzen ikuspegi ekosistemikoan zentratzen da diskurtso hori.

Pablo Suberbiolak hizkuntzen ekosistemen inguruko azalpen argia ematen du:

> [...] hizkuntzaren iraunkortasuna edo ezintasuna ez dago bere ezaugarrien baitan, baizik eta kokatzen den ekosistema soziokulturalaren baitan, non errealitatearen beste elementuekin harremana baitu. (...) Hizkuntza ordezkapen eta ukapen prozesuetan, hauek gertatu izan dira argi eta garbi elementu berriak sartu direlako ohiko ekosisteman, azkenean ber-des-antolarazi dutenak, beste fase batera pasaraziz. Linguosfera honela uler genezake: etengabeko kanpo eta barne orekan dagoen ekosistema soziolinguistikoen multzoa, eta bere baitan norbanakoek erabiltzen dituzte kodeak edo/eta erabiltzeari utzi beren etengabeko komunikazioan. Ekosistema hauetan, gizakien buru-garunak, gaitasunak, jokaerazko ohiturak, irudikapen kognitibo-emotiboek, azpi-talde soziologikoek, enpresek, merkataritzak eta beste gizarte-erakundeek, komunikabideek, hezkuntza erakundeek, eta gobernu zein administrazio publikoak bezalako elementuek eusten diete elkarrekiko komunikazio sistema diren horiei, hizkuntzei alegia.

Hizkuntza ekologia aplikatzea linguosfera hori guztia orekan mantentzea da, hortaz.

Horrez gain, hizkuntza ekologiaren teoriak hizkuntzen arteko berdintasuna aldarrikatzen du: hizkuntza guztiak dira berdinak eta ez da egin behar hizkuntzen arteko kategorizaziorik edo hierarkizaziorik. Hizkuntza-komunitate eta hiztun guztiek dituzte eskubide berberak eta munduko hizkuntza guztiek dute duintasunez bizirauteko eskubidea eta denei eskaini behar zaie garapen osorako aukera. Hizkuntzak galbidean daudenean, hizkuntzak biziberritzeko eta normalizatzeko plangintzak abian jartzea da bitartekorik eraginkorrena, kaltetutako ekosistema soziolinguistikoa bere onera bueltatu eta berregitura dadin.

2.4.2. Ekolinguistika

Ekolinguistika ekologiaren eta linguistikaren artean sortutako kontzeptua da, eta hizkuntza guztiak elkarrekin orekan bizitzeko modua proposatzen du. Hots, hizkuntza handiak eta txikiak elkarrentzat mehatxu izan gabe modu iraunkorrean elkarren ondoan bizitzea posible dela proposatzen du.

Hauxe da 2004ko Linguapax topaketetan eman zen azalpena:

> Hizkuntza-aniztasunaren gaur egungo dinamika hiltzailea urte gutxian aldatzeko, eraginkorra izan daiteke hizkuntzak ekosistema plural bateko espezie modura ulertzea, hau da, bata bestearen elkarreraginean eta denak elkarrekin bizi diren espezie modura hartzea. Hizkuntzen hurbilpen ekologiko horri ekolinguistika deitzen zaio eta ekolinguistikak planteatzen du hainbat hizkuntzak elkarrekin bizi dezaketela zonalde berean modu iraunkorrean, hau da, denen arteko oreka zainduz eta erabilera-funtzioak banatuz, elkarrenganako mehatxu izan beharrean. Horretarako, hizkuntzarik erabilienen eta hizkuntza gutxituen arteko oreka proportzionatua lortu behar da, hizkuntza gutxituak egoera ahulagoan egoten baitira, batez ere estatuen politikek arlo instituzionalean zehaztutako politikei dagokienez. Hizkuntzen garapen iraunkorra lortzeko, askotan biziberritze eta normalizazio teknika bidez lagundu behar zaie hizkuntza gutxituei. Hizkuntzak modu iraunkorrean garatu daitezen nahitaezkoa da erakunde instituzional eta politiko propio baten babesa izatea, komunitate bakoitzak bere baliabideak kudea ditzan eta bere kultur identitatea bizirik manten dezan ekosistema horren barruan. Planetako espezie asko desagertzeko arriskuan dauden ideiaren inguruko kontzientzia kolektiboa badagoen bezala eta bioaniztasuna mantentzeko premia onartuta dauka-

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

> gun bezalaxe, kontzientzia kolektiboa sortu behar dugu hizkuntza-aniztasuna aberastasun modura mantentzeko ideiaren inguruan ere.
>
> Informazioaren gizartearen aro berri honek kulturen arteko ukipena bultzatzen du. Hurbiltasun hori mesederako izatea lortu behar dugu, mehatxurako izan beharrean. Horretarako behar-beharrezkoa da munduko hizkuntzen arteko elkarbizitza global eta iraunkorrerako eredu on bat sortzea. Izan ere, Joan Antoni Argenter-ek dioen bezala, hizkuntza bat desagertzen denean, "munduan bizitzeko modu bat desagertzen da".

Bestalde, gaur egun frogatuta dago bioaniztasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren arteko lotura estu-estua dela. Ranka Bjeljac-Babic ikertzaileak azaltzen duen bezala,

> [...] hizkuntza aniztasunak eta bioaniztasunak arrisku berberak dituzte: batetik, hizkuntza gehienak galzorian dauden «espezieak» direlako eta, bestetik, aniztasun biologikoaren eta kulturalaren artean barne-barneko lotura kausala dagoelako. Arriskuan dauden hizkuntzak endemikoak dira, landareak eta animaliak bezala, edo bestela, esparru txiki baten mugen baitan daude. Aniztasun biologikorik handieneko estatuen %80an daude, hain zuzen, hizkuntza endemiko gehienak. Zergatik gertatzen da hori? Giza taldeek lekuan lekuko ingurunearen arabera eboluzionatu eta moldatu behar izaten dutelako. Ondorioz, ezagutza jakin batzuk hartzen eta sortzen dituzte ingurune jakin horretatik abiatuta, eta hizkuntza izaten da ezagutza horien isletako bat edo, askotan, isla bakarra. Hizkuntzak hilzorian dituzten herri batzuk dira, gaur egun, arriskuan dauden baliabide naturalei buruzko ezagutzak dituzten bakarrak. Hizkuntza horiek hilez gero, ingurumenari buruzko ezagutza tradizionalak ere bertan galduko dira.

2.4.3. Hizkuntza-garapen iraunkorra

Hauxe da garapen iraunkorraren definizioa, Brundtland Txostenaren arabera: ondorengo belaunaldiek beren beharrak asetzeko ahalmena baldintzatu gabe gaur egungo beharrak ziurtatzeko modua.

1987. urtean Brundtland Txostena onartu zenean, ingurugiroaren eta garapenaren arteko lotura datozen hamarkadetan aurre egin beharreko arazo nagusi gisa identifikatu zen. Nolabait baliabide naturalen balioa neurtu gabe beharrei erantzuten jarraitzea etorkizuneko belaunaldientzat arrisku bat zela onartu zen, alegia munduko pobrezia ingurumenaren degradazioarekin batera handituz zihoala. Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen gizarte baten garapen ekonomikoa uraren erabileraren, lur eta itsasoen garbitasunaren, basoen eta, beraz, bere edertasunaren mende dagoela. Ordutik hona 'garapen iraunkorra' terminoa etorkizuneko erreferente ekonomiko gisa erabiltzen da. Batetik, baliabide naturalen arrazoizko erabilera egitea eskatzen duelako eta, bestetik, ekosistemaren babesa hiritarren, zientziaren eta instituzio publikoen esku uzten duelako.

Beraz, garapen iraunkorrak dio posible dela ekonomikoki garatzea, baina horrek ez duela zertan ekarri baliabide naturalak suntsitzea eta galtzea betirako. Nolabait uztartu egiten ditu ekonomikoki garatzearen kontzeptua eta baliabide naturalak eta espezie bizidunak mantentzearen ideia.

Kontzeptu hori hizkuntzen kasura ekarrita sortu da, hain zuzen ere, hizkuntza-garapen iraunkorraren kontzeptua. Alegia, esparru komunikatibo handiagoko hizkuntzen ezagutza eta erabilera taldeko hizkuntzen biziraupen eta sustapenarekin bateragarri egitea. Beste modu batera esanda, proposatzen du hiztunok eremu zabaleko hizkuntzak jakitea (eta erabiltzea), baina era berean geure jatorrizko hizkuntzari uko ez

egitea eta geure hizkuntza garatzea eta sustatzea egunerokoan. Gauza biak bateragarriak direla planteatzen digu hizkuntza-garapen iraunkorrak.

Beraz, ekolinguistikaren ikuspegitik, nazioartekotutako enpresen kasuan helburua litzateke enpresen nazioarteko interbentzioak ez kaltetzea lekuan lekuko ekosistema soziolinguistikoa. Alegia, hizkuntza guztien biziraupenaren aldeko eragile positibo modura joka dezatela, hizkuntzen kudeaketa iraunkorra bultzatuko duten politikak garatuz.

2.4.4. Subsidiaritatearen printzipioa

Hizkuntzarik erabilienen eta hizkuntza gutxituen arteko oreka proportzionatua lortu ahal izateko, oso tresna edo irizpide eraginkorra (eta beharrezkoa) da subsidiaritatearena. Subsidiaritatearen printzipioaren arabera, menpeko hizkuntzari funtzio esklusiboak eta eraginkorrak ematen zaizkio. Alegia, hizkuntza lokalean egin daitekeen guztia hizkuntza lokalean egin behar da, eta hizkuntza globalagoak funtzio globaletarako uzten dira (tokiko hizkuntzan egin ezin denerako).

Printzipio hori aplikatuz lortuko da hizkuntza bakoitzari bizirauteko behar dituen komunikazio-funtzioak ematea eta hizkuntza guztiak modu iraunkorrean garatzea, ekosistema linguistiko hori osasuntsu eta orekan mantenduz, alegia.

3. NOLA BALIATU HIZKUNTZA-GARAPEN IRAUNKORRA ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA GARATZEKO

3.1. Enpresen gestioa eta hizkuntzen gestioa, elkarren eskutik

Enpresa pertsonaz osatutako giza-taldea da. Beraz, hiztunez osatutako talde egituratu bat da. Beste modu batera esanda, enpresak hizkuntza-komunitateak dira. Beraz, ez dago hizkuntza gabeko enpresarik. Beti dago hizkuntza-erabilera jakin bat, esplizitua ala inplizitua (kontzienteki erabakitakoa ala inoiz esplizitatu gabea), baina praktikan hizkuntzek funtzioak betetzen dituzte egunero enpresetan.

Hortaz, enpresaren gestioaren parte dira hizkuntzak ere, eta enpresaren funtzionamendu osoan eragiten du hizkuntzak. Gestioak hizkuntzak erabiltzea dakar, eta hizkuntza aniztasunak gestio-premia dakar. Beste modu batera esanda, enpresaren gestioak hizkuntzen gestioa eskatzen du. Eta are gehiago aro globalean. Globalizazioaren eraginez, munduko hizkuntzen ukipena handitu egin da eta enpresak merkatuetan zabaltzen doazen neurrian, hizkuntzak kudeatzeko premia handitzen joango da etorkizunean.

3.2 Glokalizazioa

Glokalizazioa globalizazioaren eta lokalizazioaren kontzeptuak nahastetik datorren terminoa da, eta ikuspegi ekonomikotik eta kulturaletik defini daiteke.

Termino ekonomiko modura, maila globalean pentsatu eta maila lokalean ekiteko gai den pertsona, taldea edo erakundea dela esan ohi da. Beraz, kontzeptu hau aplikatzeak ezinbestean dakar enpresa lekuan lekuko ingurunearen ezaugarrietara egokitzea, bere produkzioak eskaera lokalen arabera bereiztuz.

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

Kultur termino modura, elementu lokalen eta mundializatuen artean sortzen den nahasketa da. Mugak (ekonomikoak, politikoak eta sozialak) desagertzen ari diren mundu global honetan, oztopo kulturalak handitzen ari dira, kultur globalizazioaren aurrean bere tradizioak eta kultur identitatea defendatzen dituzten pertsonak baitaude.

Beraz, mundu globalizatu honetan lekuan lekuko identitateek balioa eta indarra hartzen ari direla esaten digu glokalizazioak.

3.3. Zergatik da onuragarria hizkuntza-kudeaketa iraunkorra aplikatzea nazioartekotutako enpresentzat?

Arrazoi asko eman daitezke, baina galdera horri beste galdera batekin erantzun dakioke: zergatik interesatzen zaie enpresei gaur egun ingurumenaren aldeko neurri ekologikoak hartzea eta gizartearen aurrean ekologiaren lagun modura agertzea? Bada, arrazoi berarengatik izan daiteke onuragarria hizkuntzen kasuan ere.

3.3.1. Win to win

Enpresa sendoek, beren politikak zehazterakoan, etorkizunerako apustu sendoa egiten dute arlo guztietan, epe laburreko etekin azkarren bila ibili gabe. Epe luzerako apustua eta epe luzerako inbertsioak, hortaz. Gizartearentzat onuragarria dena eta enpresen intereserako interesgarria dena egin behar du. Oinarrizko ideia bat: *denontzat ona dena, niretzat ere ona da*. Enpresen arteko negoziazioetan bezala, *Zuk (gizarteak) irabazi >> Nik (enpresak) irabazi* planteamendua da aukerarik onena beti.

3.3.2. Ona langileentzat, ona enpresarentzat, ona hizkuntzentzat

Nire hipotesiaren arabera, ekolinguistikaren paradigma enpresan aplikatzeak onurak ekarriko dizkie langileei, enpresari eta hizkuntzari.

- Langileei begirako onurak: eleanitzak izatera bultzatuko ditu langileak. Nazioartekotutako enpresa batek han eta hemen produkzio plantak baditu, Tokian tokiko plantan barne-funtzionamendurako aurreikusita dauden hizkuntza-erabileren arabera, lanpostuaren arabera eta beste plantekin izan ditzakeen kanpo-harremanen arabera, hizkuntza bat ala beste bat ikasi ahal izango du langileak. Bakoitzak hiru hizkuntza jakitera iristea litzateke onena. Hori oso onuragarria litzateke bai arlo profesionalerako eta baita norbere garapen pertsonalerako ere.
- Enpresari begirako onurak: langileak eleanitzak izatea lortzen bada, hori oso onuragarria izango da enpresarentzat. Langile eleanitzen sarea izateak harremanetarako eta negozioetarako aukerak ematen ditu. Azken finean merkatuak elkarrizketak baitira. Enpresaren intereserako askoz ere aberatsagoa da hizkuntza ezberdin asko menperatuko dituen langile-sarea izatea, langile ingelesdunak besterik ez izatea baino. Horrela bakarrik lortuko du enpresak egoera ezberdinetara egokitzeko gaitasuna. Enpresak lan-merkatu globalizatu honetarako ondo prestatuta egon nahi badu eta hizkuntza-aberastasunean eta hizkuntza-gaitasunean aurrera egin nahi badu, hainbat hizkuntza landu beharko ditu, eta ez bat edo bi. Gainera, lekuan lekuko hizkuntza aniztasunerako planteamendua egitea da kontua.
- Hizkuntzei begirako onurak: alde batetik, lekuan lekuko hizkuntzei ematen zaie lehentasuna. Hau da, planta bakoitzeko barne-funtzionamendurako lekuan le-

kuko hizkuntzek eta lehentasunez hizkuntza gutxituek hartzen dute protagonismoa. Horretarako baldintzak dauden kasuetan, noski.

Prestigio-maila horretako nazioarteko enpresa batek lan-munduko funtzioetan hizkuntza gutxituak erabiltzen dituela ikustea oso onuragarria da bai hizkuntza gutxituen normalizaziorako (*gutxitu* izatetik *normal* izatera pasa daitezen), eta baita inguruko beste enpresa batzuk normalizazio bidean jartzeko ere.

Horrez gain, lekuan lekuko hiztunen hizkuntza-eskubideak errespetatzea berme handia da hizkuntza batek bere estatusa mantendu eta gal ez dezan. Hau da, hizkuntza (gutxitu) horretan lan egin nahi duten langileei enpresak aukera hori ematea klabea da hiztun-komunitate baten garaperako.

3.3.3. Legitimitate moralaren eta gizartearen onespenaren bila

Adituen ustez, giza-eskubideak, legeria eta ingurumena zaintzen dituzten multinazionalek harrera hobea daukate eta izango dute etorkizunean. Hau da, gizartearen aurrean bere kudeaketa balio etikoetan oinarritutakoa dela frogatzen duenak lortuko du gizartearen aurreko legitimitate morala, eta horrek balio erantsia eskainiko dio enpresaren irudi korporatiboari eta bere produktu eta zerbitzuei.

Giza-eskubideen esparruan, beraz, barne-bezeroei begira (langileak) eta kanpo -bezeroei begira (hornitzaileak, kontsumitzailea, erakundeak…) hizkuntzak modu iraunkorrean kudeatzea eta lekuan lekuko komunitateen hizkuntza eskubideak errespetatzea lortzen duten enpresek lor dezakete gizartearen onespena.

3.3.4. Gardentasun-irudia, konfiantza, marka-irudia, fideltasuna eta errentagarritasun ekonomikoa

Enpresek badakite aktibo ukiezinak direla enpresari eta markaren irudiari balio erantsia ematen diotenak. Enpresa asko sinetsita daude iraunkortasunaren bidetik eta ingurumena zainduz, enpresa gardenaren irudia emango duela gizartearen aurrean. Horrek sinesgarritasuna emango dio enpresari, eta bezeroengan eta bezero potentzialengan konfiantza sortuko du, enpresarekiko eta markarekiko pertzepzioa hobetu egingo da, salmentek gora egingo dute eta horrek errentagarritasuna ekarriko du epe luzera.

Horretan ere lagun dezake hizkuntzen gestio iraunkorrak eta eleaniztasuna ondo kudeatzeak. Alegia, irabazi ukiezinak ekarriko dizkio enpresari. Etekinak ezin dira dirutan zenbatu, baina balio erantsi handia ematen diote enpresari, enpresaren irudia hobetzen laguntzen baitu.

3.3.5. Berrikuntza, enpresak garatzeko. Ekolinguistika, berritzen laguntzeko

Adituek diote errentagarria dela enpresan berrikuntzak egitea. Berritzaileago izaten eta berrikuntzaren espiritua garatzen lagun diezaioke hizkuntza-garapen iraunkorrak enpresei. Berrikuntza da gaur egun enpresen elementurik inportanteenetako bat, eta adituek eskaintzen dizkiguten aholkuekin bete-betean engranatzen du hizkuntza-ekologiaren kontzepzioak: pertsonak dira helburu, eta enpresa bitarteko.

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

Etorkizunari aurrea hartu nahi bazaio, ezinbestekoa da produktu eta prozesu berriak ikertzea eta garatzea. Gizartearen aurrean iraunkortasunaren aldeko konpromiso hori agertzeak berak berrikuntzaren eta gardentasunaren irudia eskain dezake bezeroen eta gizarte osoaren aurrean, eta markaren irudia indartzen lagun diezaioke. Komunikazioan ondo asmatuz gero, nazioartean lehiakideengandik bereizteko eta desberdintzeko elementua izan daiteke hizkuntzen garapen iraunkorrarena, gizarteari *saltzeko* modukoa, eta enpresa garden, moderno eta koherentearen irudia eskain dezake, eta sorpresa-faktorearekin joka dezake merkatuan, sinpatia eta jakin-mina eraginez.

Bestalde, gaur egungo berrikuntza alorreko joerekin guztiz bat dator hizkuntza ekologiaren kontzeptua.

Business Global Conference izenarekin, kongresua egin zen Bilbon 2007ko urrian:

Izaskun Artetxek esana (BFA, Berrikuntza eta Sustapen Ekonomikoko foru diputatua): "Ezagutzaren kudeaketa izango da industria-ehunaren garapenerako giltzarri. Pertsona jada ez da baliabide, xede baizik. Enpresa ez da jada xede, baliabide baizik".

Beraz, pertsona da dagoeneko jomuga, eta pertsonak garatzeko ahalbidea duenak lortuko du enpresa garapen-bide onean jartzea. Pertsonen garapenaren bidez lortuko du enpresak arrakasta, azken batean. Hizkuntzen garapen iraunkorraren printzipioaren itzalpean diseinatu bada eleaniztasunerako politika, politika horretatik eratorritako pertsona eleanitzek askoz garapen pertsonal eta profesional maila handiagoa izango dute elebakarrek edo elebidunek baino.

Mauri Lazkanok esana (SPRI): "Berrikuntzarako giltzarriak: pertsonak prestatuta eta motibatuta egotea".

Berrikuntza ona bada enpresarentzat, eta pertsonen garapena, motibazioa eta kohesioa badira helburuak, praktika ekolinguistikoa berrikuntzaren mesederako izango da, ziur.

3.3.6. Ingurua enpresaren politiketara egokitu Vs. Enpresaren politikak inguruari egokitu

Ramon Saizarbitoriak pasarte hau idatzi zuen 2003an, *Pertsona guztiak bere baitan hartzen dituen gizartea* izeneko jardunaldietarako:

> Treneko begiratzaileak edo zinemako aretozainak baten bat gurpildun aulkian iristen ikusi orduko, gehienetan jartzen duten aurpegiak adierazi nahi du "motelak, oraintxe gureak egin du". Ikuspegi hori da, hain zuzen, lehenik aldatu beharrekoa: ez begiratu gurpildun aulkiari arazorik baleuka bezala, baizik begiratu eskailerari, hor baitago arazoa. Eredu sozialak dioen bezala, pertsona batzuek mugitzeko edo orientatzeko eragozpenak izatea ez da hainbestean arazoa, baizik eraikin eta garraiobide edo komunikabide asko halakoentzat egokitu gabe egotea, gutxieneko gizalegearen aurka.
>
> (…)
>
> Ereduz aldatzea ez da gauza erraza, izan ere aitortu beharko litzateke auzia ez dela pertsona batzuek ikusteko edo ibiltzeko eragozpenik izatea, baizik onartzea diskrimi-

nazio eta zapalkuntza kolektiboko esperientzia baten aurrean gaudela, aldaketa sozial sakon bat behar duena.

Ikuspegi hori hizkuntzen auziari aplikatuz gero, planteamendua argia da: nazioartera zabaldutako enpresek ez diote begiratu behar hizkuntza gutxituari edo hizkuntza -aniztasunari arazo-iturri bezala. Hori kudeatzeko gai ez bada, enpresak bere buruari begiratu beharko lioke arazoaren subjektu modura, eta baliabideak martxan jarri beharko lituzke (baliabide teknologikoak, ekonomikoak eta ezagutzazkoak) arazo den "eskailera" hori (hizkuntzak kudeatzeko gaitasun falta) konponbidean jartzeko eta bere gestio-sistema propioa hobetzeko.

Oztopo mentalak ere gainditu beharra dago kontu honetan. Eredu sozial hori barneratzea da, hortaz, gakoa.

Eta "eskailera" hori gainditzen duen enpresa edo multinazionala, dudarik gabe, besteak baino koska bat aurrerago joango da beti. Eredu sozial hori barneratzen duenak lehiarako abantaila izango du merkatu globalizatuan.

Ondorioz, enpresen politikak lekuan lekuko beharretara egokitzea da koherenteena, eta ez lekuan lekuko errealitatea enpresen politiketara egokitzea.

3.3.7. Irabazteari uzten diozuna da, hain zuzen ere, galtzen duzuna

Finantza alorrean enpresek erabiltzen duten aukera-kostuaren kontzeptua ere kontuan hartzeko modukoa da. Zer galtzen du enpresa batek bere gestio-sisteman hizkuntza -kudeaketa iraunkorraren balio erantsia ustiatzeari uzten dion bakoitzean? Horixe da egin beharreko galdera. Alegia, zerbait irabazteko aukera galtzen ari da etengabe: irudia, ospea, berritzaile izateko aukera, erreferente izatea, lehiakideekiko ezberdintzea, kontsumitzailearekin bere hizkuntzan komunikatzea, erosle potentzialen gure markarekiko pertzepzioak eta sinesmenak…

3.4. Europan egindako ikerketa interesgarri baten emaitza

2005ean ikerketa bat egin zuten CILT britainiar erakundeak eta nazioarteko ikerlari talde batek, elkarlanean, Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura zuzendaritzak aginduta, eta ondorioak argitaratu zituzten txosten honetan: "*ELAN: Effects on the European Economy of Shortages of Foreign Language Skills in Entreprise*".

Ikerketa horretan, Europako 29 estatutako ia 2.000 enpresa esportatzaile aztertu zituzten, eta ikerketaren helburua zen aztertzea Europako enpresak atzerriko hizkuntzetan trebatuta ez egoteak zer nolako eragina zeukan Europako ekonomian. Hauexek dira txostenetik ateratako ondorio esanguratsu batzuk:

- Europako enpresa esportatzaileen %11 (945.000 enpresa txiki eta ertain) negozio-aukerak galtzen ari dira hizkuntza-trebetasun ezagatik eta komunikaziorako oztopoak dituztelako.
- Zuzeneko erlazioa dago hizkuntzen eta esportazio-jardunaren arrakastaren artean. Hizkuntza-kudeaketako lau elementu dira klabeak arrakasta izateko nazioartean: hizkuntza-estrategiak finkatuta izatea; tokian tokiko jatorrizko hiztunen kontratazioa; langile eleanitzak izatea; eta itzultzaileak eta interpretariak erabiltzea.

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

– Horrez gain, ingelesa hizkuntza klabea da nazioarteko merkatuetan sartzeko, baina ikerketak argi frogatu du merkatuko argazkia hori baino askoz ere konplexuagoa dela eta ingelesaz gain beste hizkuntza asko beharko direla negozioetarako. Hau da, ingelesa ez dela mundu osoko hizkuntza. Enpresa bakoitzak hiru urtean gutxienez 325.000 euroko negozio-aukerak galdu ditu batez beste hizkuntza-trebetasun faltagatik, baina askoz gehiago ere izan daiteke.

– Enpresen %10 inguruk diote oztopo soziokulturalak ere izan dituztela negozioak egiteko orduan.

– 29 estatutatik 15ean enpresen %50ek diote badaukatela hizkuntza estrategia. Beraz, beste erdiak ez dauka hizkuntza-estrategiarik.

– Burutzen diren negozioen %22an jatorrizko hiztunak kontratatzen dituzte hizkuntzak kudeatzeko teknika modura.

– %46k diote hurrengo hiru urteetan merkatu berrietan sartzea aurreikusten dutela.

Emaitza horiek ikusita eta ingeles hiztunak diren herrialde europarren kasua hobeto aztertuta, Ingalaterrako The National Centre for Languages (CILT) britainiar erakundeak ondorio partikularrak atera ditu. Zehazki aztertu du zein eragin daukan Britainia Handiko ekonomian enpresa ingelesek hizkuntzak ez menperatzeak (ez jakiteak eta ez erabiltzeak). Emaitzak argiak dira:

– Britainiar enpresak negozio-aukerak galtzen ari dira eleaniztunak ez izateagatik (elebakartasuna arazo-iturri).

– Britainiar enpresak dira nazioarteko merkatuetan desabantaila handiena dutenak.

– Bezeroekin, lankideekin eta negozio-bazkideekin (filialekin) eraginkortasunez komunikatzea erabakigarria da lehiakortasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko.

– Britainiar enpresek ez dute pentsatu behar ingelesa nazioarteko lingua franca denik, hori akats handia baita.

– Negozioetan hizkuntza-trebetasunak garatzeak onura ekonomikoak, sozialak eta pertsonalak dakartza, eta ateak irekitzen ditu.

Ondorio modura: hizkuntza-oztopoen atzean, askotan merkatu-aukera bikainak ezkutatzen dira.

Britainiarrak konturatu dira zein inportantea den enpresa ingelesek beste hizkuntzak ere menperatzea eta erabiltzea. Frogatu egin dute egunero dirua eta negozio-aukerak galtzen ari direla hizkuntza-gestio kaskarra egiten dutelako (ingeles hutsean, normalki).

Hortaz, hizkuntza-gestio egoki soila ez da nahikoa enpresek arrakasta izateko, baina oso kontuan hartzeko moduko faktorea da lehia gorrian bizi diren enpresek lehiakortasunari eutsi nahi badiote. Hau da, enpresek ez dute hori bakarrik zaindu behar, baina hori ere zaindu beharko dute etorkizunean. Hizkuntza-politikarik eraginkorrena daukanak beti pauso bat aurrerago joateko aukera izango du.

3.5. Hizkuntza-potikarik eraginkorrena nazioartekotzerako

Eta zein da, bada, hizkuntza-politikarik eraginkorrena? Ikerketa horren emaitzei kasu eginez gero, hauxe litzateke:

Hizkuntza-politikarik eraginkorrena = Eleaniztasuna ondoen kudeatzen duena.

Hortaz, enpresak ondo kudeatu beharko du eleaniztasuna, bai ezagutzaren eta bai erabileraren aldetik.

Kontuan hartu beharko dira enpresak non kokatuta dituen bere plantak (produkzioa eta bitartekaritza) eta enpresak bere merkataritza-jardunak non bideratu nahi duen (salmentak, komunikazioa, produktu-eskaintza…). Hiru faktore klabe egon daitezke:

a) Langileen hizkuntza-ezagutza ahalik eta egokiena leku bakoitzerako eta lanpostu bakoitzerako: hizkuntza egokitasunerako plana egin daiteke, eta tokian tokiko hizkuntza guztietarako gaitasuna izatea litzateke egokiena.

b) Leku bakoitzean hizkuntza-erabilera ahalik eta egokiena eta osatuena: tokian tokiko hizkuntza-errealitatera ahalik eta ondoen egokitzea da kontua (barne -bezeroen eta kanpo-bezeroak gogobeteko dituena).

c) Hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko teknikak, tresnak eta aurrerapen teknologikoak ahalik eta ondoen kudeatzea. Hau da, ingeniaritza linguistikoa hizkuntza-aniztasuna indartzeko eta bereziki hizkuntza gutxituen onurarako baliatu: itzultzaile automatikoak, itzulpen memoriak, hiztegiak etab.

Eta zein hizkuntza-ereduk lor ditzake emaitzarik onenak? Zein formula izan daiteke eleaniztasuna kudeatzeko egokiena? HIZKUNTZA GUZTIAK kontuan hartzen dituena. Munduko errealitate linguistiko ahalik eta osatuena kontuan hartzen duena. Munduko hiztun-komunitate GUZTIENGANA IRISTEKO gai dena eta bakoitzari behar duena emango diona. Bada, horixe da, hain zuzen ere, hizkuntza-ekologiak proposatzen duena. Horixe da, hain zuzen ere, HIZKUNTZA-GARAPEN IRAUNKORRAK bilatzen duena.

3.6. Enpresaren gizarte erantzukizunean sakontzeko aukera paregabea

Honela defini daiteke Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE): “Enpresak gizarte eta ingurumen mailako kezkak kontuan hartzea da, merkataritzako eragiketetan eta hizketakideekiko harremanetan”.

- Erantzukizun soziala enpresek nahita hartzen duten jokabidea da, euren betebehar juridikoak gainditzen dituen jokabidea, horrek epe luzera mesede egiten baitio euren interesari.
- Garapen iraunkorraren kontzeptuari estu lotuta dago: enpresek ondorio ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak integratu behar dituzte euren jardueretan.
- Erantzukizun soziala ez da enpresaren jarduera nagusiei aukeran gehitzeko moduko gauza bat, eragina baitauka enpresaren kudeaketan eta estrategian.

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

Gizarte erantzukizunaren oraingo kontzeptuaren helburua erantzukizun hori modu estrategikoan kudeatzea eta horretarako tresnak eskuratzea da. Negozioko ikuspegi honek enpresa estrategiaren erdigunean kokatzen ditu alderdi interesatuen itxaropenak eta etengabeko hobekuntzaren nahiz berrikuntzaren printzipioa.

Bi dimentsio ditu EGEk:

- Kanpoko EGEn, enpresak kanpoko hizketakideekin eta inguru sozialarekin zein ingurumenarekin dituen harremanak aztertzen dira: komunitatea, kontsumitzaileak, hizketakide publikoak nahiz gobernuz kanpoko erakundeak, merkataritzako kideak, hornitzaileak, ...
- Barruko EGEn, enpresaren barrua jorratzen da, gizarte interesaren ikuspegitik, eta jorratze hori ez da enpresaren errentagarritasunera mugatzen. Horrenbestez, estu lotuta dago enpresa kudeaketaren funtsezko alderdietara (adibidez, giza baliabideak, laneko osasuna zein segurtasuna, langileen heziketa nahiz partaidetza, kalitatearen kudeaketa edo ingurumenaren kudeaketa,...).

Enpresen Gizarte Erantzukizuna bete-betean lotuta dago garapen iraunkorrarekin, enpresek nahita hartzen duten jokabidea da (interesatzen zaielako eta errentagarria delako epe luzera), eta eragina dauka (eta izan behar du) enpresaren estrategian eta kudeaketan.

Hizkuntzen garapen iraunkorrak, beraz, ekarpen aberasgarria egin diezaioke dimentsio horri.

Ondorioz, gizarte erantzukizunean sinesten duen enpresentzat ingurumenaren alde eta munduko hizkuntzen alde neurri *ekologikoak* hartzea gauza bera da.

4. HIZKUNTZAK MODU IRAUNKORREAN KUDEATZEKO JARRAIBIDE TEORIKO -PRAKTIKOAK

Azken atal honetan, nazioartean diharduten enpresek hizkuntzak modu iraunkorrean kudeatzeko jarraibide teoriko-praktikoak proposatzen ditut, dekalogoa osatuz.

4.1. Nazioarterako hizkuntza politika globala zehaztu

Enpresa askotan ez dago hizkuntza estrategia edo politika orokorrik esplizitatuta, modu inplizituan egiten baita egiten dena. Eta inportantea da nazioarterako hizkuntza politika globala ondo hausnartutakoa eta adostutakoa izatea. Politika horretan produkzio gune bakoitzerako (lekuan lekurako) politikak eta gune ezberdinen arteko harremanetarako eta funtzio orokorretarako arauak eta irizpideak jaso behar dira, eta horrek hausnarketa orokorra eskatzen du. Politika hori hizkuntzen garapen iraunkorra lortzera bideratu beharko litzateke, nire ustez.

Hizkuntza-politika orokorra gauzatu ahal izateko, formazio-politikak zehaztea ere komeni da.

Bestalde, planta berriren bat erosi edo eraiki behar bada munduko txokoren batean, lehendabizi mapan begiratu behar da. Mapan agertzen diren guzti-guztiak hartu behar dira aintzat, hizkuntzen duintasunaren eta berdintasunaren printzipioa jarraituz,

eta egoera bere osotasunean aztertu. Eta, abiapuntu horretatik abiatuta, aukerak aztertu, adostasuna lortu eta erabakiak hartu.

4.2. Funtzioak birkokatu

Hizkuntza politika orokorra zehaztu ondoren, enpresak diagnostikoa egin beharko luke, eta ondoren aldaketak planifikatu. Laburbilduz, pauso hauek jarrai daitezke:

- Gune edo planta bakoitzean, guneen arteko harremanetan eta funtzio orokorretan funtzio gehiegi dituzten hizkuntzak identifikatu.
- Era berean, funtzio gutxiegi dutenak ere identifikatu.
- Funtzioak hizkuntza batetik bestera gradualki pasatzeko plangintza diseinatu. Era berean, lekuan lekuko hizkuntza gutxituak normalizatzeko plangintzak diseinatu.
- Formazio premien azterketa egin eta formazio-plana diseinatu.

4.3. Ez eman ingelesari funtzio guztiak (uniformizaziorik ez)

Ingelesari funtzio guztiak emateko tentazioa izan dezakete enpresek, baina uniformizazioa saihestu egin behar da, ekolinguistikaren printzipioari kasu eginez. Hala ere, orrek ez du esan nahi ingelesa erabili ezin denik, baina ingelesa nonahi eta zernahitarako ez erabiltzeko irizpidea zaindu egin behar da. Izan ere, hedapen handiko hizkuntza bat leku askotara eta funtzio inportante askotara zabaltzen bada, ekolinguistikaren ikuspegitik oreka guztia bertan behera etortzeko arriskua dakar horrek.

Hauxe da Roland J. L. Breton, Geolinguistikako aditu eta Paris VIII Unibertsitateko ohorezko irakasleak gai honen inguruan dioena:

> (…) ingelesa erabat nagusitu da diplomazian eta, gutxinaka-gutxinaka, harreman ekonomikoetan, komunikabideetan… Badirudi ingelesak monopolioa lortu duela mundu osoko komunikabideetan. XXI. mendearen hastapenetan gaudela, bistakoa da mundializazioa ziztu bizian ari dela hedatzen ekonomian eta, horrekin batera, ingelesaren erabilerak gora egin duela alor guztietan. Gero eta gehiago dira mezuak ingelesez igortzen eta jasotzen dituztenak, norbere hizkuntza erabili beharrean. Askori berdin dio, gainera: planetan gailentzen ari den uniformizazioarekin bat datoz. Ingelesak leku askotako biztanleekin harremanak zuzenean izateko aukera ematen duela uste dute. Ikuspegi horren arabera, uniformizazioa aurrerapausoa dugu, baliabideak aurreratzeko modua eta kultur trukeak errazteko bidea. Ildo horretan, ingelesa mundu osoan nagusitu arren, ez omen dira lekuan lekuko hizkuntzak galduko. Aitzitik, nagusitasun horri esker, entzule gehiagorengana heltzeko aukera izango dugu denok. Baliteke. Baina besterik gabe onartzen badugu, begiak itxi egingo zaizkigu eta ezingo ditugu ikusi askatasun indibidualaren eta botere politikoaren arteko loturak edo hizkuntza, gizarte eta ekonomietako mekanismoen artekoak. Mekanismo horiek berez sortzen dira gizarteetan, bai gizabanakoaren eta taldearen arteko harremanetan, bai kulturaren eta talde-egituren arteko harremanetan. Hizkuntzarik egokiena edo egokienak erabiltzeko gaitasunaren arabera egin ohi du gora gizabanakoak gizartean. Eta, denboraren joanean, belaunaldiz belaunaldi, izenik handiena lortzen duen hizkuntzak baztertu egiten ditu gainontzekoak. Inperialismo kulturala ez da inperialismo ekonomikoa bezain agerikoa. Bigarrena ere ez da inperialismo politiko eta militarra bezain nabarmena, horien gehiegikeriak bistakoak izaten baitira eta, beraz, erraz salatzeko modukoak. (…) Etnozidioa edo herrien deskulturizazioa izan da, hain zuzen, iraganeko kolonizazioen

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

funtsa, eta gaur egun ere horixe da Estatu Batuen helburua, hala aitortu ez arren. Toki-hizkuntzak irakaskuntza-sistemetatik kanpo ari dira geratzen eta, ondorioz, «erailketa» prozesua are azkarragoa izango da. Bi alor bereizi behar ditugu XXI. mendeko hizkuntz arazoen inguruan. Batetik, zer egin behar dute hedadura handiko hizkuntzek edo estatu-hizkuntzek ingelesaren inbasioari aurre egiteko? Bestetik, zer egin behar dute arriskuan dauden hizkuntzek edo hizkuntza minorizatuek bizirik iraun eta garatu ahal izateko?

4.4. Subsidiaritatea aplikatu: tokian tokiko hizkuntzari funtzio esklusiboak

Subsidiaritatearen printzipioa da hizkuntza-politika orokorrerako markoa zehazteko erabili beharreko irizpide nagusia: hizkuntza *lokal* batean egin daitekeen guztia ez dadila egin hizkuntza *globalago* batean. Horrela, tokiko hizkuntzari funtzio esklusibo eta espezifiko batzuk ziurtatuko zaizkio, hedapen handiko beste hizkuntzen aurrean babestuz.

4.5. Hizkuntza lokalak zertarako, estatu-hizkuntzak zertarako eta ingelesa zertarako

Hizkuntza-politika orokorra zehazterakoan, hiru mailatako harremanak bereizi daitezke: lekuan lekuko planta bakoitzeko harremanak; gune geografiko ezberdinetako planten arteko harremanak; eta planta guztien arteko harremanak.

Hiru maila horietarako irizpide orokor batzuk emango ditut, ekolinguistikaren optikatik begiratuz:

- Produkzio gune bakoitzeko edo lekuan lekuko planta bakoitzeko harremanetan: lekuan lekuko hizkuntza edo hizkuntzak erabili. Hizkuntza bat baino gehiago badaude, lehentasuna eman hizkuntza gutxituari edo hizkuntza lokalari, subsidiaritatea aplikatuz, eta beharrezkoa denean bakarrik erabili beste hizkuntza (hizkuntza globalagoa).
- Gune geografiko ezberdinetako planten arteko harremanak (komunitate linguistiko ezberdina duten produkzio gune berezituen artekoak): finkoak diren dokumentu idatzietan (formatuak, txantiloiak edo komunikazio orokorrak) lekuan lekuko hizkuntza nagusi biak erabili. Ahozko harremanetan, aldiz, estatu-hizkuntzei eman diezaiekegu funtzio hori (adibidez, Hego Euskal Herriko eta Poloniako planten arteko harreman iraunkorretan, gaztelania edo poloniera erabil daiteke, eta horretan trebatu ditzakegu langileak).
- Produkzio gune edo planta guztien arteko harremanak: funtzio horiek ingelesak bete ditzake, betiere 3 komunitate linguistiko ezberdin baino gehiagoren arteko harremanak badira eta beste estatu-hizkuntza batek bete ezin badu funtzio hori.

4.6. Langileek hizkuntza gutxitua ikas dezaten neurri eraginkorrak hartu

Lekuan lekuko langileen artean hizkuntza gutxitu(ar)en aldeko ikaskuntza-prozesua indartuko duen neurriak hartzea komeni da, ekolinguistikaren bidea jarraitu nahi bada eta hizkuntza gutxituen normalizazioan enpresak eragile positibo izan nahi badu. Horretarako erabilera-neurriak hartu behar dira eta lekuan lekuko hizkuntzei

funtzio esklusiboak eman zaizkie, subsidiaritatearen printzipioan oinarrituta. Hori modu askotara egin daiteke. Adibidez, komunikazio orokor batzuk hizkuntza gutxituan zabalduz, programa informatikoren batzuk hizkuntza gutxituan soilik erabiliz, edota lanpostu-eskaintzetan hizkuntza gutxitua jakitea eskatuz. Horrela, langileak lekuan lekuko hizkuntza gutxituak ere ikasteko beharra sentituko dute, funtzio esklusibo batzuk hizkuntza horretan izango baitira. Eta hori hizkuntzari prestigioa ematea da, eta baita langileen hizkuntza-gaitasuna garatzea ere.

4.7. Hizkuntza aberastasuna bultzatu: langile eleanitzak, enpresa eleanitza

Gune bakoitzean kanpora begirako harremana duten langileek 3 hizkuntza menperatzera jo behar da. Era berean, hizkuntza horiek eguneroko funtzioetan erabiltzeko aukera praktikoa izango dute langileek, betiere bakoitza dagozkion funtzioetan eta subsidiaritatearen printzipioa kontuan hartuta. Eta, horrela, langileen hizkuntza-trebetasunak garatzea lortuko da Eleaniztasunean eta kudeaketa iraunkorrean oinarritutako politika aplikatzen bada, langileak hiru bat hizkuntzarekin harremanetan egongo dira gutxienez, eta hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko kultura zabaldu eta barneratu egingo da enpresako langileen artean. Hau da, langileak hizkuntza bat baino gehiagorekin jarriko dira kontaktuan, bai ahoz edo bai idatziz, eta langile eleanitzak sortuko dira. Eta horrek enpresa eleanitz bihurtuko du eta, dakigunez, eleaniztasunak negozio -aukerak zabalduko ditu.

Hauxe da Joseph Poth hizkuntzalariaren iritzia:

> Zein da nazioarteko hizkuntz politikaren helburu nagusia?
>
> Gizarte guztietan hiru hizkuntza egitea. Dena den, estatu batzuetan aspaldi lortu zuten helburu hori. Besteak beste, Luxenburgon. Galdetu bertakoei: «Aberatsak zaretelako izan al duzue hiru hizkuntza ikasteko aukera?» Eta hauxe erantzungo dizue: «Aberatsak gara, bai, baina hiru hizkuntza dakizkigulako gara aberatsak.»
>
> Hiru hizkuntza ikasi behar omen ditugu. Baina, zeintzuk?
>
> Ama-hizkuntza, jakina, inguruko hizkuntzaren bat eta, azkenik, nazioarteko beste bat. Elkarren ondoan kokatutako estatuen artean sortzen dira gerra gehienak eta horregatik iruditzen zaigu funtsezkoa herrialde mugakidearen hizkuntza ikastea, bertako premiak, nahiak, kulturak eta balioak ezagutu ahal izateko, alegia.

Hiztunen hizkuntza-aniztasuna eta aberastasuna bultzatu behar da, ahal dela. Gaur egun gutxienez elebidun izan beharko lirateke langile guztiak. Gainera, eleanitzak diren pertsonek gaitasun kognitibo handiagoa omen dute.

4.8. Hizkuntza endemikoak zaindu eta babestu lehentasunez

Nazioartekotutako enpresek hizkuntza endemikoak bereziki zaindu eta babestera jo beharko lukete, eta ezinbestean horiei eman lehentasuna. Adibidez, euskara desagertzen bada, ez dago munduan beste komunitaterik euskara erabiliko duenik. Euskara hizkuntza endemikoa da, hortaz. Euskara desagertuko balitz, denon (mundu osoaren) ondarea den hizkuntza hori desagertuko egingo litzateke. Horregatik da inportantea munduko hizkuntza-aniztasunerako hizkuntza endemikoak ondo zaintzea eta lehentasunez horiei ematea funtzio sozialak. Beraz, enpresek ere hizkuntza endemikoei lehentasuna ematea da logikoena, bai enpresa barruan eta kanpoan funtzioak ematerakoan, eta baita hizkuntza gutxituen normalizazio planak abiatzerakoan ere.

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9

4.9. Hizkuntzak biziberritzeko baldintza minimoak

Askotan gerta liteke minorizazio egoeran egotea hizkuntzaren bat eta horrek zalantza ekar lezake: hizkuntza gutxitu hori erabili beharko luke enpresak? Zein irizpide egon daiteke horretarako?

Bernat Joan i Mari-k dio 3 elementu direla beharrezkoak hizkuntzak biziberritzeko:

- Hizkuntza estandarra, formala sortuta izatea (corpusa)
- Hizkuntza erabiltzeko espazio sozialak (arloz arloko funtzioak)
- Hiztun-komunitatearen nahia, gogoa, borondatea (aldeko jarrera)

Hirugarren hori klabea da, eta hein handi batean hizkuntza askoren geroa jarrera edo borondate horren baitan dago. Beraz, ezinbestekoa da hiztun-komunitatearen partetik hizkuntzari eusteko eta enpresako jardunean funtzioak emateko aldeko jarrera izatea. Zalantzazko kasuetan, langileen ordezkaritza-organoei kontsulta egin dakieke. Hori batetik.

Eta, bestetik, enpresari dagokiona bigarrena da, hizkuntzari erabilera ematea, funtzioak eskaintzea enpresako jardunean. Baina, horretarako beste biek minimoak bete behar dituzte: oinarrizko corpus minimoa sortuta izan behar du, eta hiztunen aldetik hizkuntza erabiltzeko nahia eta borondatea egon behar da.

Horrez gain, kontuan hartu beharreko beste pare bat kontu aipatu nahi ditut: Jose Maria Sanchez Carrión *Txepetx*-en teoriaren arabera, hizkuntzek 7 funtzio bete ditzakete. Hortaz, funtzioen berreskuratze-prozesuan, enpresek 3. mailako funtzioa beteko dute (lan-arlokoa). Baina, horretarako aurreko bi funtzioak beteta edo betetzeko bidean egon behar dutela iruditzen zait, hizkuntza horren biziberritze-prozesuak arrakastarako aukera gutxienekoak bermatuta izan ditzan.

Beraz, batetik, enpresan hiztun kopuru minimo bat egotea lortu behar da lehendabizi, eta funtzio familiarra eta irakaskuntzakoa gutxienez betetzeko bidean izatea komeniko litzateke. Hau da, hizkuntza bat ez bada erabiltzen haur eta gazteen hezkuntza prozesuan eta transmisioa ia etenda badago, benetan zaila izango da hizkuntza horren erabilera normalizatzea enpresan. Hortaz, ez dauka zentzurik hizkuntza horri enpresan funtzioak emateak. Enpresa gizarteko kate-maila bat gehiago den heinean, bete egin behar du dagokion erantzukizuna, baina aurretik gizarteko beste arlo batzuetan ere hizkuntza hori erabiltzeko eta indartzeko asmoa edo plangintzatxo bat egotea komeni da, arrakasta izateko (transmisioa, irakaskuntza, aisialdia, komunikabideak…).

Zalantzazko kasuetan, gutxieneko erabilera eskaini dakioke hizkuntzari elementu finkoetan, adibidez errotulazio nagusietan hizkuntzaren presentzia bermatuz.

Beste zalantza bat izan ere izan dezake enpresak: hizkuntza ofizialen irizpidea jarraitu behar den ala ez, alegia. Kontuan hartzeko moduko faktorea izan daiteke hizkuntza bat ofiziala den ala ez enpresa batek bere produkzio-guneetan edota produktuak merkaturatzerakoan erabiltzeko?

Ez dut uste hala izan behar duenik. Izan ere, aho biko ezpata izan daiteke ofizialtasunarena. Hizkuntzen berdintasunaren eta duintasunaren printzipioa ofizialta-

sunaren gainetik jarri behar da beti, eta hori izan behar da iparra. Kasu batzuetan, bultzatu beharreko hizkuntza ofiziala edo koofiziala izateak lagun dezake argumentuz janzten, baina beste batzuetan erabat zilegi izango da enpresak ofiziala ez den hizkuntza erabiltzeko erabakia hartzea. Hortaz, ofizialtasunarena ez dadila bete beharreko irizpidea izan, ez baita neurri ekologikoa, eta hain zuzen ere horixe da saihestu nahi duena hizkuntza-ekologiaren teoriak. Hizkuntza guztiak dira duinak, eta denek dute garapena izateko eskubidea.

Adibide modura, paradoxikoki, Marokon frantsesa ez da ofiziala, baina gobernuak eta enpresek frantsesez betetzen dituzte funtziorik gehienak, eta irakaskuntzan ere hainbat eskolatan frantsesa irakasten da.

4.10. Zenbat hizkuntza?

Zenbat hizkuntzatan funtzionatu behar du enpresa batek? Ez da erraza galdera horri erantzutea, ez baitago zenbaki perfekturik, eta mila aukera egon baitaitezke balekoak. Labur-labur, esaldi bakar batean jaso nahi nuke filosofia orokorra: alferreko lanik ez hartu, baina beharrezkoak diren guztiak erabili. Alegia, aholku praktiko pare bat:

– Ahalik eta hizkuntza gutxien enpresaren barne-funtzionamendurako, baina behar diren guzti-guztiak erabili.

– Lekuan lekuko hizkuntza bat baino gehiago dagoenean, aztertu egin beharko da kasu bakoitza.

Ponentzia honi amaiera emateko, enpresen nazioartekotzerako nire proposamen ekolinguistikoa guztiak esaldi bakarrarekin laburbildu nahi nituzke:

‘Hizkuntza bakoitza bere lekuan,…

…eta leku bat hizkuntza bakoitzarentzat’.

XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. - P. 1469 - 1490. - ISBN: 978-84-8419-232-9